



HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza  
Berrikuntzaren zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Dirección de Aprendizaje e  
Innovación Educativa

**EBAZPENA, IKASKUNTZAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARIARENA, 2021-2027 ALDIAN EUROPAKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN DUTEN IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA-ORDUAK EGIAZTATZEKO PROTOKOLOA EZARTZEN DUENA.**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko maiatzaren 20ko 2021/817 (EB) Erregelamenduak adierazten du Erasmus+ dela Europar Batasunaren Hezkuntza eta Prestakuntzarako, Gazteriarako eta Kirolerako Programa, eta barne hartzen duela ikaskuntza testuinguru guztietan (formala, ez-formala eta informala) eta bizitzako etapa guztietan. Erasmus+ programak hainbat ekintza ahalbidetzen ditu, ikaskuntzarako mugikortasuna, hezkuntza-erakundeen eta -instituzioen arteko lankidetzak, politiken garapena eta elkarlana, eta Jean Monnet jarduerak bultzatzen dituztenak. Horien bidez, ikaskuntza-ibilbide malguak bultzatzen dira pertsonei beharrezko ezagutzak, gaitasunak eta konpetentziak eskuratzea eta hobetzea ahalbidetzeko, irakaskuntzako gizabanako eta profesional gisa garatu daitezkeen eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko.

Programa honen barruan, eTwinning ekimena nabarmendu behar da. Ekimen horri esker, Europako Batzordeak eskola-senidetzeak ezartzea eta Internet bidezko lankidetzak-proiektuak garatzea sustatzen du, Europako herrialde desberdinetako bi ikastetxeren edo gehiagoren artean. Europako ikastetxeen komunitate bat da, proiektuak garatzeko plataforma digital bat eskaintzen duena, parte hartzen duten herrialdeetako irakasleen eta ikasleen arteko kontaktua, ideien trukea eta lankidetzak bultzatzeko eta errazteko.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak 14. artikuluan adierazten da, besteak beste, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari dagokiola Hezkuntza Sailburuordetzaren eskumen-eremuan irakaskuntzaren arloko Europako programetan eta Europako ekintzetan parte hartzeko beharrezkoak diren ekintzak sustatzea eta bultzatzea. Beraz, eginkizun horiek betetzean, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da organo eskuduna Europako proiektuetan parte hartzen duten irakasleei prestakuntza- eta berrikuntza-orduak aitortzen dituzten ziurtagiriak emateko.

Ondorioz,

**XEDATZEN DUT**

**LEHENENGOA. Xedea**

Europako programetan egiten diren jardueretan parte hartzen duten irakasleei ziurtatuko zaizkien ordu-kopurua eta ziurtagiriak emateko prozedura zehazten dituen ebazpen hau onartzea.



### BIGARRENA. Aplikazio-eremua

Ebazpen hau aplikatuko zaie 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera Europako programen ekintza eta ekimenetan parte hartzen duten Hezkuntza Sailburuordetzaren eskumen-eremuaren barruko ikastetxeetako irakasleei.

Ekintza eta ekimen horiek Erasmus+ programaren barruan sartzen dira 1. ekintza gakoan, pertsonen ikaskuntza-arrazoiengatik mugikortasunari buruzkoan (KA120, KA121 eta KA122), eta 2. ekintza gakoan, berrikuntzarako lankidetzari eta jardunbide egokien trukeari buruzkoan (KA210 eta KA220), bai eta eTwinning prestakuntzan, Europako Parlamentuko Eskola Enbaxadoreetan eta 2021-2027 aldirako Europako beste ekimen batzuetan parte hartzeari buruzkoan ere.

### HIRUGARRENA. Hartzaileak

Horrelako aitortza izango dute Erasmus+, eTwinning, Europako Parlamentuko Eskola Enbaxadore programetan edo Europako eta nazioarteko beste ekimen batzuetan parte hartzen duten irakasleek, baldin eta horien onuraduna beren eginkizunak betetzen dituzten ikastetxea edo hezkuntza-erakundea bada.

### LAUGARRENA. Ziurtapen-irizpide espezifikoak

Aitortza, aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzen dituzten irakasleentzat, berrikuntzako ordu eta kredituen arabera egingo da, honela:

#### a. Erasmus+: programa honen barruko proiektuak

##### a.1. 1. Ekintza Gakoa (KA1) – Prestakuntza jasotzeko arrazoiengatik pertsonen mugikortasuna

KA1_Prestakuntza jasotzeko arrazoiengatik pertsonen mugikortasuna			
KA120 Erasmus+ akreditazioa	Koordinatzailea (pertsona bat)	30 ordu	Berrikuntza
	Laguntzailea	20 ordu	Berrikuntza
KA121 Ikastetxe akreditatuen proiektuak  KA122 akreditatuak ez dauden ikastetxeen proiektuak	Prestakuntza-ikastaroko parte- hartzailea	Gehienez 60 ordu (ikastaroaren egitarauaren arabera)	Berrikuntza
	Behaketa-aldiko parte-hartzailea (job-shadowing)	5 ordu/egun lektibo (gehienez 60 ordu)	Berrikuntza
	Irakaskuntza-egonaldiko parte- hartzailea	5 ordu/egun lektibo (gehienez 60 ordu)	Berrikuntza
	Proiektuaren koordinatzailea	40 ordu	Berrikuntza
	Proiektuan laguntzailea	20 ordu	Berrikuntza
	Ikasleen Iraupen Luzeko Mugikortasunean Tutore	20 ordu, ikasle bakoitzeko	Berrikuntza



HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza  
Berrikuntzaren zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Dirección de Aprendizaje e  
Innovación Educativa

	Praktiketako atzerriko irakasleen tutoretza	10 ordu, praktiketako atzerriko irakasle bakoitzeko	Berrikuntza
	Partzuergoko koordinatzailea (pertsona bat)	50 ordu	Berrikuntza
	Partzuergoko elkartekidearen koordinatzailea (pertsona bat)	30 ordu	Berrikuntza

KA120 programan parte hartzen dutenentzako ziurtagiria soilik emango da ikastetxeak aurretik akreditazioa lortu badu.

#### a.2. 2. Ekintza Gakoa (KA2) – Berrikuntzarako eta jardunbide egokiak trukatzeko lankidetzak

KA2_ Berrikuntzarako eta jardunbide egokiak trukatzeko lankidetzak			
KA210 Eskala txikiko elkartek	Elkarte koordinatzailearen koordinatzailea (pertsona 1)	50 ordu	Berrikuntza
	Elkarte koordinatzaileko laguntzailea	30 ordu	Berrikuntza
	Elkarte bazkide bateko koordinatzailea (pertsona 1)	30 ordu	Berrikuntza
	Elkarte bazkide bateko kolaboratzailea	20 ordu	Berrikuntza
KA220 Lankidetzak- elkartea	Elkarte koordinatzailearen koordinatzailea (pertsona 1)	60 ordu	Berrikuntza
	Elkarte koordinatzaileko laguntzailea	40 ordu	Berrikuntza
	Elkarte bazkide bateko koordinatzailea (pertsona 1)	50 ordu	Berrikuntza
	Elkarte bazkide bateko kolaboratzailea	40 ordu	Berrikuntza

#### a.3. Erasmus+ programaren barruko beste ekintza batzuk

Ekintza horiek, hala nola KA3, Jean Monnet edo Erasmus+ irakasleen akademiak, bereziki aztertuko dira, ikastetxe eta parte-hartzaile bakoitzaren inplikazio-maila eta lan-bolumena kontuan hartuta.

#### b. eTwinning: programa honen barruko proiektuak

eTwinning proiektu batean parte hartzen duten irakasleei berrikuntza-kredituak aitortzeko, beharrezkoa izango da prestakuntza edo proiektu hori European School Education Platform (ESEP) programaren plataforman birtualean erregistratuta egotea, eta Berrikuntza Pedagogikoaren Zerbitzuak baimena ematea. Gainera, baldintza hauek bete behar dira:

- Proiektuak gutxienez hiru hilabete iraungo du, hezkuntza-administrazioak/Laguntza Zerbitzu Nazionalak onartzen duenetik, eta gehienez ikasturte 1.
- Salbuespen gisa, proiektu bera 3 ikasturtera arte egiatzatu ahal izango da. Bigarren eta hirugarren ikasturteen jarraipena Ikaskuntzako eta Hezkuntzako Berrikuntzako Zerbitzuak baimendu beharko du, irakasle koordinatzaileak alde aurretik eskatuta eta garatzen ari den ikastetxeko zuzendaritzaren oniritziarekin.
- Aintzatespena irakasle bakoitzari emango zaio, bere izenean, eta ez dira aldi bereko proiektuak ziurtatuko.



HEZKUNTZA SAILA  
 Hezkuntza Sailburuordetza  
 Ikaskuntzaren eta Hezkuntza  
 Berrikuntzaren zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
 Viceconsejería de Educación  
 Dirección de Aprendizaje e  
 Innovación Educativa

- Ez zaizkie kredituak/orduak aitortuko beste deialdi edo programa batzuen bidez akreditazioa jaso duten eTwinning proiektuei (irakurri Erasmus+, Euroeskualdea, etab.).

eTwinning			
Ikasturte oso bateko proiektuan parte hartzea	Koordinatzailea (pertsona 1)	40 ordu	Berrikuntza
	Laguntzailea	30 ordu	Berrikuntza
Proiektuan gutxienez 6 hilabetez parte hartzea	Koordinatzailea (pertsona 1)	30 ordu	Berrikuntza
	Laguntzailea	20 ordu	Berrikuntza
Proiektuan gutxienez 3 hilabetez parte hartzea	Koordinatzailea (pertsona 1)	20 ordu	Berrikuntza
	Laguntzailea	10 ordu	Berrikuntza

### c. Europako beste proiektu batzuetan parte hartu dutenak

Europako Parlamentuaren Enbaxadore Eskolen, Interreg-POCTEFA Programaren, NAEN-Euroeskualdea Programaren eta beste programa batzuen barruko ekintza horiek modu berezian aztertuko dira, ikastetxe bakoitzean eta parte-hartzaile bakoitzak duen inplikazio-maila eta lan-bolumena kontuan hartuta.

### BOSGARRENA. Ziurtapenaren prozedura

Ikasturtea amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Ikaskuntza eta Hezkuntza Berritatzeko Zuzendaritzaren mendeko prestakuntza-orduen ziurtagirien zerbitzu kudeatzaileak ebazpen honetan aipatutako prestakuntza-ekintzei buruzko datuak eskatuko dizkio ikastetxeko zuzendariari edo dagokion hezkuntza-erakundearen legezko ordezkariari, behar bezala sinatuta eta zigilatuta, partaidetza hori egiaztatzen duten agiriak erantsi ditzen.

Beharrezko datu guztiak lortu ondoren, aipatutako zerbitzu kudeatzaileak ofizioz egiaztatuko du prestakuntza hori.

### SEIGARRENA. Beste xedapen batzuk

Nolanahi ere, Europako programetan parte hartu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak jarduera horiek egin ziren ikasturtearen amaieran emango dira, eta ikasturte horretan egindako prestakuntzak eta ekintzak egiaztatuko dira, proiektua amaitutzat jo den ala ez kontuan hartu gabe.

Erasmus+ KA1 proiektu batean parte hartzeagatik kredituak lortzeak ez du esan nahi Erasmus+ KA2 proiektu batean edo antzeko ekimen europar batzuetan parte hartzeagatik kredituak lortu behar ez direnik.

Mugikortasuneko Erasmus+KA1 proiektu baten koordinatzaile nagusiak ziurtagiri bakarra jaso ahal izango du. Inola ere ezin izango zaio aldi berean ziurtatu proiektu horretako koordinazioa eta

**HEZKUNTZA SAILA**

*Hezkuntza Sailburuordetza  
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza  
Berrikuntzaren zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**

*Viceconsejería de Educación  
Dirección de Aprendizaje e  
Innovación Educativa*

lankidetza.

Lankidetzako Erasmus+KA2 proiektu baten koordinatzaile nagusiak ziurtagiri bakarra jaso ahal izango du, hau da, ezin izango zaio aldi berean ziurtatu koordinazio orokorra eta koordinazioa gizarte-erakundean edo lankidetza erakunde horretan.

Nolanahi ere, Europako programetan parte hartzeagatik gehienez ere 60 ordu egiaztatu ahal izango dira ikasturte akademiko bakoitzean.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean

Amaia Agirre Pinedo

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaria